

Oposición cuerpos de secundaria, escuelas oficiales de idiomas y especialistas en sectores singulares de la formación profesional 2025 Bigarren hezkuntzako, hizkuntza-eskola ofizialetako eta lanbide-heziketako sektore berezietako	Prueba 2B, exposición de la unidad didáctica / ámbito de FP 2B proba, unitate didaktikoaren azalpena / LHko eremua
Resolución 249/2024, de 15 de noviembre / 249/2024 Ebazpena, azaroaren 15ekoa	

0590 - MATEMÁTICAS / EUSKERA

0590 - MATEMATIKA / EUSKARA

CRITERIO DE VALORACIÓN / BALORAZIO IRIZPIDEAK	Puntuaciones / descuentos máximos Gehieneko puntuazioak / murrizketa
Alderdi orokorrak	1 pto. / puntu
Unitate didaktikoa justifikatu da eta hari testuingurua eman zaio programazioaren edo espezialitatearen gai-zerrendaren barruan.	0,5 ptos. / puntu
Unitate didaktikoa ongi egituratuta dago eta haren elementuak koherenteak dira beren artean.	0,5 ptos. / puntu
Helburuak, edukiak eta metodologia	2 ptos. / puntu
Honako hauek ongi planteatuta daude eta elkarren artean koherenteak dira: ikaskuntza helburuak, gaitasunak (funtsezkoak eta espezifikoak), deskriptore operatiboak, oinarritzko jakintza gisa adierazitako edukiak, metodo pedagogikoak, ebaluazio irizpideak, ikaskuntza egoerak eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edota Lanbide Heziketako oinarritzko mailako zikloetan, irteera-profila.	1 pto. / puntu
Zehaztu da zer-nolako lotura duten oinarritzko jakintzek funtsezko gaitasunak eta espezifikoak garatzeari begira, bai eta gaitasunek deskriptore operatiboekin duten lotura ere.	0,5 ptos. / puntu
Metodo pedagogikoak bat datoz ikasleen ezaugarriekin.	0,5 ptos. / puntu
Jarduerak	2,5 ptos. / puntu
Jarduerak motibagarriak dira eta zailtasun maila bat baino gehiago dituzte, ikasleen eta ikasmailaren ezaugarrietara egokitzeko. 1.-Ikaskuntza-egoerek honako hauek sustatzen dituzte: diziplina aniztasuna, proiektu bidezko ikaskuntza, arazo-egoerak, erronkak, sormena, autonomia, lankidetzeta eta ekintzailatza... 2.- Espazio- eta denbora-antolaketa, eta ikasleen taldekatzea. 3.-Zailtasunak eta hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleentzako berariazko jardueren planifikazioa.	1 pto. / puntu
Guneak eta denborak antolatzea.	0,5 ptos. / puntu
Material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak dira.	0,5 ptos. / puntu
Jarduerak ikaskuntza-helburuetara egokitzen dira. 1. Ebaluazio-irizpideekiko lotura. 2. Helburuak talde-gela mailara eta hezkuntza-testuingurura egokitzea. 3. Helburu neurgarriak zehaztea	0,5 ptos. / puntu

Ebaluazioa	3 ptos. / puntu
Ebaluazio irizpideak eta ikaskuntza egoerak bat datoz ikaskuntza helburuekin, gaitasunekin (funtsezkoak eta espezifikoak), deskriptore operatiboekin, oinarritzko jakintzekin eta aplikatu beharreko metodo pedagogikoekin.	1 pto. / puntu
Prozedurek, ebaluazio tresnek eta kalifikazio irizpideek adierazten dute zer-nolako jardun maila espero den ikasleen partetik, eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kasuan, zer-nolako ekarpena egingen dioten ikasleen irteera profilari. 1.-Askotarikoak eta malguak: bat datoz ikasleen aniztasunarekin. 2.-Irizpideak eta adierazleak: egokiak etengabeko ebaluaziorako, eta objektiboki neur daitezkeenak. 3.-Irteera-profilari egiten dion ekarpena, DBHren kasuan	1 pto. / puntu
Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarritz hezkuntza-laguntzako berriazko premiak dituzten ikasleentzako neurriak. Helburuak erdiesten ez dituzten ikasleentzako esku hartze neurriak. 1.-Ebaluaziorako, autoebaluaziorako eta etengabeko hobekuntzarako prozesuak eta tresnak. 2.- Emaizak aztertze, konklusioak ateratzeko eta irakas-praktika hobetzeko proposamenak egiteko prozesuak eta tresnak. • Helburuak lortu edo konpetentziak eskuratu ez dituzten ikasleei zuzendutako neurriak	1 pto. / puntu
Komunikazio gaitasuna	1,5 ptos. / puntu
Ideiak modu egituratuan eta ulergarrian adierazi dira, komunikazio-testuingurura egokitutako formalitate-mailarekin hitz egiteko gaitasunarekin.	1 pto. / puntu
Ebaluazio epaimahaiaren galderei emandako erantzunak egokiak eta koherenteak izan dira.	0,5 ptos. / puntu